



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

**2018KO URTARRILAREN 23KO EZ OHIKO
UDALBATZA**

NOIZ: 2018ko urtarrilaren 23an, arratsaldeak 14:30etan

NON: Ikaztegieta Udaltzeko Areto Nagusian

BERTARATUAK: Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

Zinegotziak:

Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)

Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Xabat Ibarguren Lazkano (EH BILDU)

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

AZTERGAIK:

1.-1/2018 kreditu aldaketaren onarpena. Transferentzia Kreditu motakoa.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2018KO URTARRILAREN 23KO EZ OHIKO UDALBATZA

2.- Ikaztegieta Udalaren Plan Estrategikoaren (2018/01/01-2022/12/31) onarpena.

- ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.

Bestalde Udalbatzak aho batez berretsi egiten du gai ordena eta beraz gai zerrendako gaien azterketari ekiten zaio.

1.- 1/2018 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA, TRANSFERENTZIA KREDITU MOTAKOA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, bertaratutako zinegotziek gaia eztabaidatu ondoren aho batez honako erabakia hartzen dute:



**2018KO URTARRILAREN 23KO EZ OHIKO
UDALBATZA**

2

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	75.294,06	3.000,00	72.294,06
GUZTIRA		75.294,06	3.0000,00	72.294,06

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
-----------	-------	------------------	------------	--------------------



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

**2018KO URTARRILAREN 23KO EZ OHIKO
UDALBATZA**

:

6	INBERTSIO ERREALAK	33.800,00	3.000,00	36.800,00
GUZTIRA		33.800,00	3.000,00	36.800,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

2.- IKAZTEGIETAKO UDALAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN (2018/01/01-2022/12/31) ONARPENA

UEMAko teknikariak prestatuta, Igor Urreta Garaialde zinegotziak Ikaztegietakoko Udalaren Plan Estrategikoaren (2018/01/01-2022/12/31) aurkezpena egiten du eta ondoren bozkatu egiten da onartua izan dadin.

Bertaratuta zinegotziek aho batez honako ERABAKIA hartzen dute:

BAKARRA- Onartzea Ikaztegietakoko Udalaren Plan Estrategikoaren (2018/01/01-2022/12/31). Akordiori atxikita doa Plan Estrategikoa



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2018KO URTARRILAREN 23KO EZ OHIKO
UDALBATZA

Horrenbestez, arratsaldeko 14:45 direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.

Ikaztegieta 2018ko urtarrilaren 23an

O.I.
ALKATEA,



Idazkaria,

